

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuak 2016ko aurrekontuak eta Arte-programazioa onartu ditu

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatua batzartu da gaur eta bileran honakoak izan dira: Iñigo Urkullu jauna, Patronatuaren Presidentea eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria; Unai Rementeria jauna, Bizkaiko Ahaldu Nagusia eta Fundazioaren Batzorde Betearazlearen Presidentea; Juan María Aburto jauna, Bilboko Alkatea; Cristina Uriarte andrea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua; Lorea Bilbao andrea, Euskara eta Kultura Foru Diputatuak; New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim Museoen Zuzendariak, Richard Armstrong jauna eta Juan Ignacio Vidarte jauna; eta Fundazioaren gobernu-organo gorenaren zati diren enpresen eta erakundeen ordezkariak.

Bilera honetan 2016ko jardunerako aurrekontua baietsi da; erakundeek aurreko jardunean egindako ekarpen bera egingo dute, baina Museoaren sarreren prezioak igoko dira urtarilaren 1etik aurrera —zazpi urtez ez dira aldatu—, beste museoen antzekoak izan daitezzen. Era berean, hurrengo urterako arte-programazioa ontzat eman du Patronatuak. Horretan aintzat hartzen da espazioen banaketa estrategiko berria. Hirugarren solairuak gaur egungo artearen oinarriak hartuko ditu: Guggenheim Bilbao Bildumaren funtsekin batera —modu jarraikian egongo dira ikusgai—, Bigarren Mundu Gerra aurreko artea erakutsiko da; apiriletik aurrera Parisko Eskolaren inguruko erakusketa izango da —Guggenheim Fundazioarekin Kudeaketa-akordiarekin berritzean hitzartutako bi urterik behin egingo diren erakusketen lehena da— eta urte amaieran Hermann eta Margrit Rupf-en Bildumaren hautaketa bat ikusgai izango da, Kunstmuseum Bern-etik datorrena. Bigarren solairuan aldi baterako erakusketa handiak erakutsiko dira eta honakoak izango dira ikusgai: Louise Bourgeois-i eta haren *Gelak* sailari, baita serie horrekin lotutako ibilbide beste lan batzuei ere, eskainitako erakusketa eta Francis Bacon-en eta haren lanean kultura frantsesak eta espainolak izandako eraginaren gaineko erakustaldia. Azkenik, lehen solairuak gaur egungo artearen zertzeladak hartuko ditu: Andy Warhol-en eta Albert Oehlen-en erakusketa monografiko bana eta Eija-Liisa Ahtila-ren, Sam Taylor-Johnson-en eta Fiona Tan-en bideoinstalazioak adierazpide horri eskainitako Film & Video aretoan.

Horrez gain, 2017ko programazioaren proiektu batzuk aurkeztu dira, Museoak horietan lanean baitihardu. Horien artean daude Georg Baselitz-i eskainitako eta Espresionismo Abstraktuaren gaineko erakusketak; joera horren erakusketarik ez da egin Europan azken 60 urteotan, eta Londresko Royal Academy of Arts-ekin lankidetzan antolatuko da.

Saio honetan, halaber, Museoaren jardunaren balantzearen berri eman da. Aurtengo uda Museoaren onena izan da; inoiz baino bisitari gehiago etorri dira, eta abenduaren 13ra arte 1.059.257 pertsonak bisitatu dute Museoa. Bisitarien jatorriari dagokionez, atzerritarrak gehien dira, %65, eta horien artean frantsesak, bisitarien kopuru osoaren bosten bat baitira.

GUGGENHEIM BILBAO

Bestalde, 2015–2017ko Plan Estrategikoaren ekimenen artean, [Etika-kode eta jardunbide egokien kode](#) bat idaztea zegoen; izan ere, Museoak urtetan landu du bide hori eta 2015eko ekainean Fundación Compromiso y Transparenciak estatuko museorik gardenentzat jo zuen. Etika-kode eta jardunbide egokien kodea onartu dute gaur Batzorde Betearazleak eta Patronatuak, dagozkien batzarretan. Kode horretan jardunbide-estandarrak jasotzen dira, hainbat kontzepturen ingurukoak, besteak beste: zuzentasuna, gardentasuna, zintzotasuna, diskriminaziorik eza eta oztopo fisikoen eta zentzumenei dagozkien oztopoen ezabaketa. Horrela, Museoak bere asmoetako batzuk bete ditzake, hain zuzen, integrazioarako gune izatea, artea gizarteari hurreratzea eta begirunea, tolerantzia eta aniztasuna, beste balio batzuen artean, sustatzea.

Bilbon, 2015eko abenduaren 14an